# I ARABAKO FORU ALDUNDIA

## Administrazio Xedapenak

*Foru Aginduak*

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**5154**

**481/2013 FORU AGINDUA, urriaren 2koa, behin betiko onartzen duena Iekorako 1 poligonoko 158 lurzatian nekazaritza biltegi bat eraikitzeko plan bereziaren espedientea.**

AURREKARIAK

Lehenengoa.- 2012ko azaroaren 7an, Iekorako Udalak erabaki zuen hasierako onarpena ematea Iekorako 1 poligonoko 158 katastro lurzatian, "El Pago" izeneko aurkintzan, lurzoru urbanizaezinean, nekazaritza biltegi bat eraikitzea garatzen duen antolamendurako plan bereziari. Halaber, erabaki zuen espedientea jendaurrean jartzea hogei egunez, eta halaxe egin zen ALHAOn (133. alea, 2012ko azaroaren 19koa) eta El Correo egunkariaren egun bereko Arabako edizioan argitaratutako iragarkien bitartez.

Bigarrena.- Jendaurrean egon zen bitartean ez zen alegaziorik aurkeztu. Beraz, udalbatzak, 2013ko urtarrilaren 28ko ohiko bilkuran, behin-behineko onarpena eman zion espedienteari.

Hirugarrena.- Aipatutako plan bereziak lurzoru urbanizaezinari eragiten dionez, udalak txostena idazteko eskatu zion AFAko Ingurumen eta Biodibertsitate Zerbitzuari, plan berezia ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozeduraren pean jartzeko beharrari buruz hain zuzen.

2013ko martxoaren 18an, zerbitzu horrek zera adierazi zuen: txostenaren xede den plan bereziak "ez du ondorio nabarmenik izango ingurumenean (211/2012 Dekretuak ezarritako irizpideen arabera) eta, beraz, ez dago ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozeduraren pean jarri beharreko plan eta programen zerrendaren barruan…".

Laugarrena.- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak, Arabako Hirigintza Planeamenduko Atalak apirilaren 24an egindako 2/2013 bilkuran, dokumentuaren aldeko txostena eman zuen.

Bosgarrena.- Aldundi honetan 2013ko maiatzaren 30ean sartu zen idazki baten bitartez, udalak uko egin zion espedientea izapidetzeari eta, ekainaren 11ko 293/2013 Foru Aginduaren bidez, bukatutzat eman zuen, bertan behera utzi zelako, Iekoran nekazaritza biltegi bat eraikitzeko plan berezia behin betiko onartzeko udalak Arabako Foru Aldundiari bidalitako espedientea.

Seigarrena.- Iekorako Udalak, 2013ko maiatzaren 26an egindako aparteko bilkuran, erabaki zuen aipatutako planari hasierako onarpena ematea berriro; bai eta espediente hori hogei egunez jendaurrean jartzea ere, eta halaxe egin zen ALHAOn (64. alea, 2013ko ekainaren 5ekoa) eta El Correo egunkariaren egun bereko Arabako edizioan argitaratutako iragarkien bitartez.

Plan bereziari berriro ere hasierako onarpena eman zitzaion bakar-bakarrik 211/2012 Dekretua aplika zekion –ingurumen ondorioetarako izapidetzeari dagokionez–, hau da, plana ez jartzeko ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozeduraren pean, AFAren Ingurumen eta Biodibertsitate Zerbitzuak idatzitako txostenaren arabera ez baitu ondorio nabarmenik izango ingurumenean.

Zazpigarrena.- Espedientea jendaurrean egon zen bitartean ez zen inolako alegaziorik aurkeztu. Horren ondorioz, udalak, 2013ko uztailaren 24an egindako ohiko bilkuran, behin-behineko onarpena eman

# DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA I

## Disposiciones Administrativas

*Órdenes Forales*

### DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

**5154**

**ORDEN FORAL 481/2013, de 2 de octubre, aprobación definitiva del expediente de plan especial para la construcción de un almacén agrícola en la parcela 158 del polígono 1 de Yécora.**

ANTECEDENTES

Primero.- Con fecha 7 de noviembre de 2012, el Ayuntamiento de Yécora acordó aprobar inicialmente el Plan Especial de Ordenación que desarrolla la construcción de un almacén agrícola en la parcela catastral 158 del polígono 1 en el paraje denominado "El Pago" del suelo no urbanizable del término municipal de Yécora, así como someter el expediente a información pública por el plazo de veinte días, hecho que fue practicado mediante el anuncio en el BOTHA nº 133, de 19 de noviembre de 2012 y en el periódico "El Correo", edición Álava, de la misma fecha.

Segundo.- Dentro del plazo de exposición pública no fue presentada alegación alguna, procediendo el Ayuntamiento, en sesión ordinaria del día 28 de enero de 2013, a la aprobación provisional del expediente.

Tercero.- Dado que el Plan especial de referencia afecta al suelo no urbanizable, el Ayuntamiento solicitó al Servicio de Medio Ambiente y Biodiversidad de la DFA informe sobre la necesidad de someter al Procedimiento de Evaluación Ambiental Estratégica dicho Plan Especial.

Con fecha 18 de marzo de 2013, el mencionado Servicio concluye que el Plan Especial objeto de informe "no provocará efectos significativos sobre el medio ambiente (según criterios establecidos por el Decreto 211/2012) y en consecuencia no se encuentra entre la lista de planes y programas sometidos al procedimiento de Evaluación Ambiental Estratégica…".

Cuarto.- La Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco en su sesión 2/2013, de 24 de abril, de la Sección de Planeamiento Urbanístico de Álava, informó favorablemente el documento.

Quinto.- Mediante escrito con entrada en esta Diputación de 30 de mayo de 2013, el Ayuntamiento renunció a la tramitación del expediente declarándose, mediante Orden Foral 293/2013, de 11 de junio, finalizado por desestimiento el expediente elevado por el Ayuntamiento a la Diputación Foral de Álava para la aprobación definitiva del Plan Especial para la construcción de un almacén agrícola en Yécora.

Sexto.- Con fecha 26 de mayo de 2013, en sesión extraordinaria, el Ayuntamiento de Yécora acordó nuevamente aprobar inicialmente el Plan de referencia, así como someter el expediente a información pública por el plazo de veinte días, hecho que fue practicado mediante el anuncio en el BOTHA nº 64, de 5 de junio de 2013 y en el periódico "El Correo", edición Álava, de la misma fecha.

La nueva aprobación inicial se realizó a los únicos efectos de que se aplique al Plan Especial -en cuanto a su tramitación a efectos medioambientales- el Decreto 211/2012, con objeto de que se exima a dicho Plan ser sometido al Procedimiento de Evaluación Ambiental Estratégica por no provocar, según del informe del Servicio de Medio Ambiente y Biodiversidad de la DFA, efectos significativos sobre el medio ambiente.

Séptimo.- Durante el plazo de exposición pública no fue presentada alegación alguna, procediendo el Ayuntamiento, en sesión ordinaria del día 24 de julio de 2013, a la aprobación provisional del expe-

zion espedienteari eta erabaki zuen hori Foru Aldundira bidaltzea, behin betiko onarpena jasotzeko. Espedientea 2013ko abuztuaren 14an heldu zen Aldundira.

Zortzigarrena.- Diputatu Nagusiaren uztailaren 21eko 62/2011 Dekretuan xedatutakoarekin bat etorriz, behin betiko onarpena –hura eman ala ez– Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuari dagokio, plan berezia aztertu eta espedienteak jendaurrean arauzko epea bete ondoren.

OINARRIAK

Lehenengoa.- ESQUIDE SC nekazaritza sozietateak sustatu duen espediente honen helburua da justifikatzea eraikitako nekazaritza biltegiak bete egiten duela irailaren 28ko 251/2010 Dekretuak, Guardiako (Arabako Errioxa) Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren lehenengo aldaketa onartu zuenak, 34. bis artikuluan xedatutakoa, izan ere, horren bidez “beste nekazaritza eraikin batzuei” zabaldu zitzaien aldaketa horretako 34. artikuluan zehaztutako parametroak betetzeko beharra.

Bigarrena.- Nekazaritza nabea lekorako 1 poligonoko 158 katastro lurzatian, “El Pago” izeneko aurkintzan, lurzoru urbanizaezinean, kokatua dago. Lurzati hori (azalera: 22.256,58 $m^2$) lekorako herrigunetik 80 metro iparraldera dago gutxi gorabehera, eta hainbat kalifikazio ditu: 5. zona: nekazaritza, abeltzaintza eta landazabala (erabilera mugatua); 6. zona: nekazaritza eta abeltzaintza; eta 3. zona: basoa. Eraikina 5. eta 6. zonen artean kokatua dago, hiri lurzorutik 120 metrora, sarbidearen paraleloan eta handik 8 metrora.

Eraikinak espazio diafanoa du, bai eta 39x25 metroko neurriak eta bi isurkiko estalkia ere, zeinak 7 metroko altuera duen hegaleraino eta 11 metrokoa goihaberaino.Nekazaritzako ibilgailuak eta makinak, baserriko lanabesak eta zereal aleak gordetzeko erabiliko litzateke. Lurzatiaren urbanizazio lanak maniobratarako hormigoizko 500 $m^2$ inguruko zolaren bidez osatzen dira.

Hirugarrena.- Nekazaritza biltegia kokatuta dagoen lurzoru urbanizaezineko zonek eraikuntza erabilera hori onartzen dute. Jarduera hori arautzen duten hirigintza parametroak indarreko arau subsidiarioen 138. artikuluan “nekazaritza biltegietarako eta lurzoruaren erabilerarekin zerikusia duten nekazaritza eta abeltzaintza ustiategiei lotutako eraikinetarako” ezarrita daudenak dira. Horri dagokionez, jabetza erregistroaren ziurtagiria aurkeztu beharko da, egiaztatzen duena 0,30 nekazaritzako lan unitateren azalera minimoa eraikuntza erabilera horri lotua dagoela.

Laugarrena.- Guardiako (Arabako Errioxa) Lurralde Plan Partzialaren lehenengo aldaketaren 34.2.2. artikuluak “eraldaketa instalazio txikiei” ezarritako irizpideei dagokienez, aldaketa horretan jasotako 34.bis artikuluak “beste nekazaritza eraikuntza batzuentzat” xedatzen duenari jarraituz:

1.- Eraikina paisaiara egokitzeari dagokionez, egindako proposamenean jasotzen den tipologia estandarizatua ez dator bat lurralde planaren filosofiarekin, ezta 34.2.2.f) artikuluaren azken paragrafoan ezarritakoarekin ere. Beraz, alderdi hori behar bezala justifikatu beharko da.

2.- Ez da aurkeztu honakoa egiaztatzen duen dokumentazio grafikorik: “urbanizazioa bat etorriko da paisaian txertatzeko printzipioekin” (Guardiako Lurralde Plan Partzialaren lehenengo aldaketaren 34.2.2.k artikulua). Horrez gain, egungo zati urbanizatuak ez ditu printzipio horiek betetzen.

Bosgarrena.- Dokumentuaren alderdi formalei dagokienez, hauek aurkeztea falta da:

- Kokapen planoak.
- Azpiegitura planoak, egungo egoera eta proposatzen den egoera jasotzen dutenak.
- Txostenaren xede den lurzatiko jardueraren erabilera xehatuak eta azalerak (eraikinak, urbanizazio elementuak, aparkalekuak, zuhaiztiak...) biltzen dituen planoa. Gainera, grafikoki justifikatu beharko

diente acordando, también, su remisión a la Diputación Foral para su aprobación definitiva, donde tuvo entrada el 14 de agosto de 2013.

Octavo.- De conformidad con lo dispuesto en el Decreto del Diputado General número 62/2011, de 21 de julio, la aprobación definitiva, si procediese, corresponde a la Diputada titular del Departamento de Medio Ambiente y Urbanismo, a la vista del documento de Plan Especial y del resultado de su exposición pública durante el plazo legal.

FUNDAMENTOS

Primero.- El objeto del presente expediente, promovido por la sociedad agrícola “ESQUIDE SC”, es justificar que se da cumplimiento a los requisitos exigidos para el almacén agrícola construido según lo dispuesto en el artículo 34.bis de la 1ª Modificación del Plan Territorial Parcial (PTP) del Área Funcional de Laguardia (Rioja Alavesa), aprobada mediante Decreto 251/2010, de 28 de septiembre, por el que se extiende a “otras construcciones agrícolas” el deber de cumplir con los parámetros especificados en el artículo 34 de la citada modificación.

Segundo.- La nave agrícola se sitúa en la parcela catastral 158 del polígono 1 en el paraje denominado “El Pago” del suelo no urbanizable del término municipal de Yécora. Dicha parcela receptora, ubicada a unos 80 metros al norte del núcleo urbano de Yécora y con una superficie de 22.256,58 $m^2$, posee distintas calificaciones “Zona 5: agroganadera y campiña (uso limitado), zona 6: agroganadera y Zona 3: Forestal), situándose la construcción entre las zonas 5 y 6, a 120 metros del suelo urbano, paralelo al camino de acceso y a 8 metros de él.

La edificación se configura como un espacio diáfano, con unas dimensiones de 39x25 metros y una cubierta a dos aguas con 7 metros de altura al alero y 11 metros de altura de cumbrera. Su destino sería el de acoger vehículos y maquinaria agrícola, así como almacenar aperos de labranza y granos de cereal. La urbanización de la parcela se completa con unos 500 $m^2$ de solera de hormigón para maniobras.

Tercero.- Las zonas de suelo no urbanizable donde se asienta el almacén agrícola admiten este uso constructivo, siendo los parámetros urbanísticos que regulan dicha actividad los indicados en el artículo 138 de las Normas Subsidiarias vigentes para “almacenes agrícolas, edificaciones vinculadas a las explotaciones agrícolas y ganaderas ligadas al uso del suelo”. A este respecto, se deberá aportar certificación del Registro de la Propiedad que acredite la vinculación a este uso constructivo de una superficie mínima correspondiente a 0,30 UTAs.

Cuarto.- En cuanto a los criterios que se establecen en el artículo 34.2.2. de la 1ª Modificación del PTP de Laguardia (Rioja Alavesa) para la implantación de “pequeñas instalaciones de transformación”, en virtud de lo señalado en el artículo 34.bis de la citada modificación para “otras construcciones agrícolas”:

1.- En relación al tema de la adecuación al paisaje, la propuesta introduce una tipología estandarizada no conforme ni con la filosofía de este Plan Territorial, ni con lo establecido en el último párrafo del artículo 34.2.2.f), por lo que deberá justificarse este aspecto convenientemente.

2.- No se aporta documentación gráfica que acredite que “la urbanización será acorde con los principios de integración del paisaje” (artículo 34.2.2.k de la 1ª Modificación del PTP de Laguardia) careciendo, además, la realidad urbanizada existente de dichos principios.

Quinto.- En relación con los aspectos formales del documento, faltaría por aportar:

- Planos de emplazamiento y situación.
- Planos de infraestructuras en su estado actual y en su estado propuesto.
- Plano de diferentes usos pormenorizados y superficies de la actividad (edificaciones, elementos de urbanización, aparcamiento, arbolado,…) en la parcela objeto de informe que justifique gráfi-

du egindako proposamenak bete egiten dituela paisaiara egokitzeari buruz agindutakoak. Plano horretan jasoko dira ere lurzatian dauden zonifikazioak eta haien azalerak.

- Lotu nahi den lurzatia eta haren azalera grafikoki definitzen dituen planoa, indarreko arau subsidiarioek 138. artikuluan nekazaritza biltegiei buruz adierazitakoaren arabera.

- "Egikaritzea antolatzeko eta kudeatzeko jarraibideen azterlana" eta "ekonomia eta finantza bideragarritasunari buruzko azterlana", 2/2006 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoru eta Hirigintzarenak, 68. eta 69. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

- Aldaketa horiek euskarri informatikoan jasoko dira, eta berriro aurkeztu beharko da plan bereziaren edukia, formatu hauetan: planoak *.pdf eta *.dwg -2000 bertsioan gordeko dira– edo *.shape luzapena duten fitxategietan, eta testua, *.pdf eta *.doc luzapena duten fitxategietan.

Aurkeztutako planoak zuri-beltzean inprimatuak daude eta horrek, behar bezala interpretatzea eragozteaz gain, zenbait marra (espediente honen kasuan, lurzatiaren iparraldeko mugarenak) desagerrarazi ditu. Horiek horrela, arazoari irtenbidea eman behar zaio.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz, honakoa

XEDATZEN DUT

Lehenengoa.- Behin betiko onartzea Iekorako 1 poligonoko 158 katastro lurzatian, "El Pago" izeneko aurkintzan, lurzoru urbanizaezinean, nekazaritza biltegi bat eraikitzea garatzen duen antolamendurako plan bereziari, ondoko baldintzekin:

1.- Jabetza erregistroaren ziurtagiria aurkeztuko da, egiaztatzen duena 0,30 nekazaritzako lan unitateren azalera minimoa eraikuntza erabilera horri lotua dagoela.

2.- Dokumentuaren alderdi formalei dagokienez, hauek aurkeztuz osatu beharko da:

- Kokapen planoak.

- Azpiegitura planoak, egungo egoera eta proposatzen den egoera jasotzen dutenak.

- Txostenaren xede den lurzatiko jardueraren erabilera xehatuak eta azalerak (eraikinak, urbanizazio elementuak, aparkalekuak, zuhaiztiak...) biltzen dituen planoa. Gainera, grafikoki justifikatu beharko du honako hau: "urbanizazioa bat etorriko da paisaian txertatzeko printzipioekin" (Guardiako Lurralde Plan Partzialaren lehenengo aldaketaren 34.2.2.k artikulua). Plano horretan jasoko dira ere lurzatian dauden zonifikazioak eta haien azalerak.

- Lotu nahi den lurzatia eta haren azalera grafikoki definitzen dituen planoa, indarreko arau subsidiarioek 138. artikuluan nekazaritza biltegiei buruz adierazitakoaren arabera.

- "Egikaritzea antolatzeko eta kudeatzeko jarraibideen azterlana" eta "ekonomia eta finantza bideragarritasunari buruzko azterlana", 2/2006 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoru eta Hirigintzarenak, 68. eta 69. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

- Aldaketa horiek euskarri informatikoan jasoko dira, eta berriro aurkeztu beharko da plan bereziaren edukia, formatu hauetan: planoak *.pdf eta *.dwg -2000 bertsioan gordeko dira– edo *.shape luzapena duten fitxategietan, eta testua, *.pdf eta *.doc luzapena duten fitxategietan.

Bigarrena.- Aipatutako aldaketak ez dira funtsezkoak. Beraz, haiek zuzendutakoan espedientea foru aldundiari igorriko zaio, berriro ere jendaurrean jarri beharrik gabe, betearazi beharrekoa dela adieraz dezan, izapideak egin daitezen eta argitara dadin.

Hirugarrena.- Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena.- Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, eta bere aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urriaren 2a.– Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua, MARTA RUIZ CERRILLO.

camente, además, el cumplimiento de la propuesta en cuanto al tema de la adecuación al paisaje. Dicho plano recogerá también las distintas zonificaciones existentes en la parcela receptora y sus superficies.

- Plano en el que gráficamente se defina la parcela a vincular y su superficie conforme a lo indicado en el artículo 138 de las Normas Subsidiarias vigentes en relación a los almacenes agrícolas.

- El "estudio de las directrices de organización y gestión de la ejecución" y el "estudio de viabilidad económico-financiera", conforme a lo establecido en los artículos 68 y 69 de la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo del País Vasco.

- Estas modificaciones deberán estar reflejadas en soporte informático, debiéndose aportar nuevamente el contenido del Plan Especial de la siguiente forma: los planos en ficheros con extensión *.pdf y *.dwg -se guardarán en versión 2000- ó *.shape, y el texto en ficheros con extensión *.pdf y *.doc.

La impresión en blanco y negro de los planos aportados no sólo no permite interpretar los mismos adecuadamente sino que, además, ha provocado la desaparición de algunos trazos (en el caso que afecta a este expediente, el límite norte de parcela objeto de informe), por lo que habrá de resolverse este problema.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO

Primero.- Aprobar definitivamente el expediente de Plan Especial de Ordenación que desarrolla la construcción de un almacén agrícola en la parcela catastral 158 del polígono 1 en el paraje denominado "El Pago" del suelo no urbanizable del término municipal de Yécora, con las siguientes condiciones:

1.- Se presentará certificación del Registro de la Propiedad que acredite la vinculación a este uso constructivo de una superficie mínima correspondiente a 0,30 UTAs.

2.- En relación con los aspectos formales del documento, deberá completarse con:

- Planos de emplazamiento y situación.

- Planos de infraestructuras en su estado actual y en su estado propuesto.

- Plano de diferentes usos pormenorizados y superficies de la actividad (edificaciones, elementos de urbanización, aparcamiento, arbolado,…) en la parcela objeto de informe que justifique gráficamente, además, que "la urbanización será acorde con los principios de integración del paisaje" (artículo 34.2.2.k de la 1ª Modificación del PTP de Laguardia). Dicho plano recogerá también las distintas zonificaciones existentes en la parcela receptora y sus superficies.

- Plano en el que gráficamente se defina la parcela a vincular y su superficie conforme a lo indicado en el artículo 138 de las Normas Subsidiarias vigentes en relación a los almacenes agrícolas.

- El "estudio de las directrices de organización y gestión de la ejecución" y el "estudio de viabilidad económico-financiera", conforme a lo establecido en los artículos 68 y 69 de la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo del País Vasco.

- Estas modificaciones deberán estar reflejadas en soporte informático, debiéndose presentar nuevamente el contenido del Plan Especial de la siguiente forma: los planos en ficheros con extensión *.pdf y *.dwg -se guardarán en versión 2000- ó *.shape, y el texto en ficheros con extensión *.pdf y *.doc.

Segundo.- Las modificaciones señaladas no son sustanciales, por lo que una vez subsanadas se elevará el expediente a la Diputación Foral, sin necesidad de someterlo a un nuevo trámite de información pública, con el fin de declarar su ejecutoriedad y proceder a su diligenciación y publicación.

Tercero.- Publicar la presente resolución en el BOTHA.

Cuarto.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse directamente recurso contencioso-administrativo, en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, a 2 de octubre de 2013.– La diputada de Medio Ambiente y Urbanismo, MARTA RUIZ CERRILLO.